

## / Nabarmentzekoak

- > Jarduerak herritar guztien oinarriko eskubideak aldarrikatzeko Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta (4. or.)
- > 35. Itziar Lopez de Uralde Oroi-lasterketa (5. or.)
- > 70 belaontzi inguru Gallo Estropadan (5. or.)



Getxolandiak ostiralean, hilak 14, zabalduko ditu atak (3. Or.)

**Gabonetako kontzertuak.** Abenduaren 15, 19, 20, 21 eta 22an, zenbait agertokitan.

**A-  
GENDA**

**Gospel kontzertua.** Abenduak 22, larunbata, 20:00etan, The Upper Room, Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrera: 10€.

## “Gabonetan, zure lotura guztiak Getxon daude” kanpaina

Gabonetan, zure lotura guztiak Getxon daude goiburu pean, aurten ere, hiritar getxotarrek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute Gabonetan. Getxoko Udalak berak edo berarekin lankidetzan aritzen diren zenbait elkartet antolatutako ekitaldiak dira: kaleak, dendak eta taberna-jatetxeak dinamizatzeko, lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko eta txikienek jarduera horiekin guztiekin goza ditzaten.

**Tabernen ordutegia zabalduko da** Datorren ostiraletik aurrera, abenduak 14, eta urtarrilaren 6ra arte, igandea, Udalak ostalaritzako lokalak zarratzeko ordutegia bi ordu zabalduko du, ostalaritzako 1, 2, 3 eta 4 taldeetako establezimenduetan, Gabonetan sektore horretako jarduera ekonomikoa laguntzeko asmoz.

### Aparkalekua, Romo herri ikastetxean

Jakitera eman denez, Romo herri ikastetxeko patioa ohiz kanpoko aparkaleku publiko gisa erabiliko da berriro gabon egunetan. Abenduaren 24tik, astelehena, 16:00etatik aurrera, eta 25era, asteartea, 22:00ak arte, aparkatu ahal izango da. Ordutegi berbera izango da abenduaren 31tik urtarrilaren 1era eta urtarrilaren 5etik 6ra.

### Gabon argiak

Urtarrilaren 6ra arte egongo dira piztuta gabon-argiak. 222.066€ inbertitu dira (iaz baino %38 gehiago); orain arte argirik izan ez duten kale eta plazetan ere jarri dira apaingarriak aurten.

### Getxo Enpresa

Erakusleihu lehiaketak 28. ekitaldia ospatuko du aurten, 30 sari baino gehiago emanez, besteak beste, egonaldiak sparekin, txangoak belaontzian, Gabonetako saskiak, publizitatea, opari-txartelak establezimendutan trukatzeko eta abar. Aldi berean, Getxo Enpresak *EGUBERRIA DESKUBRITU* ekimena jarri du abian abenduaren 21era arte: txotxongioloak, ipuin-kontalariak, clown ikuskizunak eta antzezpenak, kanpainarekin bat egin duten establezimenduetan. [www.getxoenpresa.com/eu/](http://www.getxoenpresa.com/eu/)

### Algortako dendak

30 saltoki inguruk beren erakusleihoak

## Gabonetan, zure lotura guztiak Getxon daude...

Zure familia, zure kuadrilla... eta konfiantzako **1.200 saltoki** baino gehiago, giro oparoarekin!



Getxon  
daukazu!

Getxo  
bizi ezazu

apainduko dituzte modu berezian eta gai berdinari eutsiz. Kanpainara atxikitako dendak dauden kaleak girotuko dituzte Itxarkantuk eta The Binilo'sek. Kanpainaren irudia Miren Tamayo ilustratzaileak diseinatu du, ciencaminos.com saltokikoak.

Halaber, txartelak banatuko dira aipatutako saltokietan gabonetan erosten duten bezeroen artean eta txartel horien artean hiru sari zozketatuko dira: 300, 200 eta 100€koak (parte hartzen duten establezimenduetan gastatzeko).

Facebook: [Algortako dendak](#)

### Oparitu euskaraz

2018/2019ko Euskarazko Produktuen Katalogoaren 1.500 ale banatu ditu Udalak eta 0 eta 16 urte bitarteko haurrak dituzten 7.000 familiei informazio-eskutitz bana bidali die. Interneteko bertsioa, [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus), sakeleko telefono eta tabletentzat egokituta dago. Udalerriko 12 liburu-dendak kolaboratzen dute ekimenarekin eta badituzte katalogoko produktuak. Informazioa: [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus) Getxoko liburu-denda laguntzai-

leak eta [www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara).

### Getxolandia 2018/19

Getxolandiak, Getxoko Haur Parkeak, jolasak eta atrakzioak izango ditu haurrentzat, abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra, Areetako Geltokia plazan (ikus 3. orrialdea).

### Olentzeroaren kalejira eta Erregeen desfilea

Olentzeroaren batzordeek eta dantza taldeek hainbat jarduera antolatu dituzte abenduaren 22an, 23an eta 24an, auzo bakoitzaren arabera. Kalejiren ibilbideak eta beste jarduera batzuk ezagutzeko: [www.getxo.eus/euskera](http://www.getxo.eus/euskera). Halaber, Erregeen Kabalgata Getxon barrena ibiliko da urtarrilaren 5ean, larunbata, eta erregeen ohiko harrera-ekitaldiak ere egingo dira.

### Gabonak Kultur Etxetan

Romoko Kultur Etxean eta Algortako Kultur Aretan proposamen ludikoak antolatuko dira (tailerrak, jolasak...) 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat, aben-

duaren 26an, 27an eta 28an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an. Gehienak euskaraz egingo dira eta beste batzuk ingelesez. Izenematea: abenduaren 16ra arte.

### Haur antzerkia

Abenduaren 26an, asteazkena, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Benetan taldearen *Inondik inora* antzezlanak ikusi ahal izango da euskaraz. Ostegunean, hilak 27, ordu eta toki berean, Limar Teatrotan *El cuento de la azuzaina* antzeztuko da, gaztelaniaz. 4 urtetik gorako umeentzat. Sarrera: 5€.

### Gabonetako kolonia musikalak

Abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 5era, Algortako Musika Eskolan eta Romo Kultur Etxean, umeentzako kolonia musikalak izango dira, K-Arimaren eskutik. Gaia: antzinako mitologiaren mundua. Ordutegia: 09:30-13:30. Matrikula: 99€ (+35€ ordutegi zabalagoarekin). [karimakoloniamusikalak@gmail.com](mailto:karimakoloniamusikalak@gmail.com).

### Ludoteka eta gaztelekuak

Areetako Eskoletako plazan dagoen ludotekan, aisialdirako hainbat ekintza antolatuko dira 5 eta 11 urte bitarteko umeentzat. Abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra egingo dira, 10:30etik 13:30era. Dohainik dira eta lekuak mugatuak.

Bestalde, Algortako GauEgun eta Romoko GureGune gaztelekuan, hainbat jarduera antolatuko dira, horietako azkena PINera eguneko irteera izango delarik, abenduaren 29an, larunbata.

### Bapiruke koloniak

Bizarra Lepoan elkarteak ere, Udalaren laguntzarekin, Bapiruke koloniak antolatu ditu berriro euskaraz. 5 eta 12 urte arteko umeek hartuko dute parte beraietan. Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra egingo dira (tailerrak, jolasak, irteerak...), Algortako Juan Bautista Zabala eskoletan eta Romo herri ikastetxean. Inskripzioa egiteko epea itxita dago jada. Informazioa: 94 491 03 87 tel., [info@bizarralepoan.eus](mailto:info@bizarralepoan.eus) eta [www.bizarralepoan.eus](http://www.bizarralepoan.eus).

### Kirol campusak

Azkenik, Gabon hauetan, 12 kirol campus eskainiko dituzte zenbait kirol taldek, Getxo Kirolak-en laguntzarekin (ikus 5. orrialdea).

**A-**  
**GENDA**

### ABENDUAK 13 OSTEGUNA

**Getxon zuzenean.** Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Arana (rocka). Sarrera dohainik.  
**Erakusketa.** Aixerroten, Gabonetako ongintzako erakusketa kolektiboa: argazkiak, akuarela, olio, porzelana gainean egindako pintura, ehun margotua, zeta... Urtarrilaren 16ra arte.  
**Hitzaldia.** Romoko San José parrokiaren, 18:15ean, "Zoriontsuak izateko irakurtzea". Hizlari: Pablo Zapata (irakaslea eta idazlea). Sarrera dohainik. Antolatzaile: Gizatiar, Romo-Areetako emakumezkoen gizarte- eta kultura-elkarte.  
**Showroom Solidarioa.** 17:00etatik 20:00etara, Basagoiti etorbidea 73, behean, Gabonetako opariak. Antolatzaile: Aretxondo Kultur Elkarte.

### ABENDUAK 14 OSTIRALA

**Getxolandia.** Urtarrilaren 6ra arte, Areetako Geltokia plazan. Antolatzaile: Euskadiko Feriari Autonomoen Elkarte (AFADE). Orduetgia: 11:00-14:30 eta 17:00-21:00. Sarrera: 1,50€ (banakakoa) eta 5€ (best bidiaia atrakzio berean).  
**GETXOARTE 2018.** Hilaren 16ra arte, Romo Kultur Etxean, praktika garaikideen erakusketa, komisarioen eta ikerkuntza praktikorako topaketa. 08:00-22:00.  
**Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako saioa. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.  
**Cinema Paradiso.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpittituludun jatorrizko bertsoan, "Loving" filmaren proiektio eta foruma. Zuzendaria: Jeff Nichols. Hizkuntza: ingelesa. 7 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.  
**Showroom Solidarioa.** 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Basagoiti etorbidea 73, behean, Gabonetako opariak. Antolatzaile: Aretxondo Kultur Elkarte.

### ABENDUAK 15 LARUNBATA

**GETXOARTE 2018.** Romo Kultur Etxean, 09:00-21:00.  
**Liburutegiak topaleku.** Kulturarteko jaiak. Algortako Kultur Etxean eta Liburutegian, hainbat ekitaldi familia osoarentzat. 18:00-21:00. Laguntzaileak: Immigrazio eta Kultura-artekotasunaren Unitatea eta Getxoko Etorkinen Plataforma.  
**Ingurumen Aretoa.** "Bolueko esploratzaileak". Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. 10:00etatik 14:00ak arte. Doako jarduerak. Informazioa: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).  
**Gabonetako kontzertua.** 3. orrialdea ikusi.  
**Showroom Solidarioa.** 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Basagoiti etorbidea 73, behean, Gabonetako opariak. Antolatzaile: Aretxondo Kultur Elkarte.

### ABENDUAK 16 IGANDEA

**GETXOARTE 2018.** Romo Kultur Etxean, 09:00-21:00.  
**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Fer-

dinand". Gaztelaniaz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.  
**Ingurumen Aretoa.** Familientzako tailerra "Lurzoruak ezkatzen duena. Egin ezazu zure meteorologia estazioa", Ekobideak elkar-tearen eskutik. 10:30etik 13:30ak arte. Doako jarduerak. Informazioa: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

### ABENDUAK 17 ASTELEHENA

**Odol-ematea.** Bidezabalgo osasun zentroan, arratsalde.  
**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Pilar Viñasen "Sorpresas navideñas" (eskulanak). Urtarrilaren 4ra arte.  
**Zine tailerra.** "Diario de un escándalo" proiektioa, 18:30ean, Algortako Kultur Etxean. Zuzendaria: Richard Eyre. Sarrera dohainik. Antolatzaile: ENclave de ciudadanas por Getxo.

### ABENDUAK 18 ASTEARTEA

**Odol-ematea.** Algortako Erredentorearen aparkalekuan, arratsalde.

### ABENDUAK 19 ASTEAZKENA

**Liburu aurkezpena.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Kultur Etxeko Sormen-idazketaren tailerreko ikasleen "La teoría del Donut" liburuaren aurkezpena. Sarrera dohainik.  
**Gabonetako kontzertua.** 3. orrialdea ikusi.

### ABENDUAK 20 OSTEGUNA

**Odol-ematea.** Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde.  
**Getxon zuzenean.** Azkorriko Fargalokan, 20:00etan, Still River (bluesa). Sarrera dohainik.  
**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, "Akuarelak", Leticia Gonzálezen eskutik. Urtarrilaren 20ra arte.  
**Ipuinaren ordua.** Gobelako haur-liburutegian, 18:00etan, Roberto Mezquitaren eskutik, "Cuentos de gorra". Gaztelaniaz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.  
**Gabonetako kontzertua.** 3. orrialdea ikusi.

### ABENDUAK 21 OSTIRALA

**Zine-kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "C'est la vie" filmaren proiektioa. Zuzendaria: Oliver Nakache-Eric Toledano. 7 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.  
**Gabonetako kontzertua.** 3. orrialdea ikusi.

### ABENDUAK 22 LARUNBATA

**Bertsolariak: ALBE Gala.** Igeretxe jatetxean, 19:30ean, ALBEren (Algortako Bertsolari Eskola) eskutik. Sarrera gonbidapenez (Informazioa: [www.albe.eus](http://www.albe.eus)).  
**Gospel kontzertua.** Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, The Upper Room. Sarrera: 10€.  
**Gabonetako kontzertua.** 3. orrialdea ikusi.  
**Ingurumen Aretoa.** "Taloak familiar" tailerra, 10:30etik 13:30ak arte. Ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea. Informazioa: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

### ABENDUAK 23 IGANDEA

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Vaya bichos". Gaztelaniaz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.  
**Ingurumen Aretoa.** Txiki tailerrek 6-14 urte bitarteko umeentzat: "Egin itzazu gure inguruko animalien aztarnak", 10:30etik 13:30ak arte. Informazioa: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

koa, 11 litrokoa. la berria. Tel.: 94 668 01 66 eta 665 71 79 16.  
- **Neska** arduratsua eta eskarmentuduna lan bila dabil etxeko lanak egin edo adinekoak eta umeak zaintzeko. Barneko gis aedo orduka. Tel.: 643 15 27 48.  
- **Neska** eskarmentuduna eta erreferentziakin lan bila dabil barneko gisa adinekoak zaintzeko. Tel.: 632 51 84 14.

## Bolueko esploratzaileak, Ingurumen Aretoaan garatzen ari diren ekintzetako bat

Getxoko Ingurumen Aretoa asteburu dohainik eskaintzen dituen tailer zein ekintzetako batzuk dira honako hauek: xaboiak egitea etxeko olio birziklatua berberabiliz, nekazaritza ekologikoa bultzatzeko edo gure inguruko sendabelarren ezaugarri nahiz erabilpenak ezagutzeko tailerak, Bolueko hezegunetik ibilbide-txoak bertoko hegaztiak identifikatzeko edo Getxoko kostaldetik geologiaren ikuspuntutik prestatutako ibilbideak eta haurrentzako tailerak munduko eta nazioarteko egunetan, besteak beste.



Astean zehar Getxoko eta inguruko udalerriko ikastetxeei hezkuntza programak eskaintzeaz gain, Ingurumen Aretoa asteburu publiko orori zuzendutako ekintza programa anitza eskaintzen du. Aktibitate guzti horien helburua ingurumen sentzibilizazioa eta garapen jasangarriarekiko kontzientziak lantzea eta sustatzea da, eta bide batez, gure zonaldeko hainbat ingurumen aspektuen garrantzia azpimarratzea.

**Bolueko Esploratzaileak**  
Izan ere, hori da Ingurumen Are-

toan irailtik garatzen ari den ekintza berri baten helburua: Bolueko Esploratzaileak. Herri-tarrak parte hartzeko jarduerak da. Horren bitartez, parte hartzen duen talde bakoitzak Bolueko Hezegunearen egoeraren inguruko diagnostiko txiki bat osatu behar du, bere kontserbazio maila ezagutzeko, zenbait aspektu kontuan hartuz: mugikortasuna, biodibertsitatea, hondakinak, uraren kalitatea, zarata eta abar. Diagnostiko hau burutzeko, Agenda 21ko ikasleek ibilbideetan egiten dutenaren antzekoa, Ingurumen Aretoa aipatutako jarduerak gauzatzeko behar diren material guztiak ematen ditu:

prismatikoak, landa-koaderno bat, uraren kalitatea aztertzeko keta, zarata neurtzeko sonometroa, identifikazio gidak... Era berean, eta esploratzailearen zeregina errazteko asmoz, talde parte-hartzaile bakoitzak bere gailu mugikorren deskarga ditzaie bertokoak zein inbaditzaileak diren flora eta fauna espeziak identifikatzeko gidak, baita hezegunearan adierazgarri eta esanguratsuenak diren hegaztien txioei buruzkoak, hegaztiak behatzeko kokapen onenak seinatzen dituzten mapak, eta gure udalerriko natur-altxor berezi hau bene-tako esploratzaile gisa aztertzeko beste tresna lagungarri batzuk.

## 629 jabeen komunitateak aurkeztu dute Eraikuntzen Ikuskaritza Teknikoa iragan azarora bitartean

## Jakinarazpen berriak EITearen aurrerapena ikusita

Udalak ontzat jotzen du 50 urtetik gorako antzinatasuna duten egoitza-erakinen egoeraren ikuskaritza teknikoa egiteko prozesuan orain arte izandako aurrerakada. Iragan azarora arte, 629 izan dira EIT edo Eraikuntzen Ikuskaritza Teknikoa aurkeztu duten jabeen

komunitateak, udalerrian aurkeztu beharra duten 1.887etatik, hau da, %33,33ak. Auzoz auzo, Romo-Areetan jazo da aurrerapen handiena, ia erdiak, derrigortuta dauden eraikuntzen %49ak aurkeztu baitu EITea; ondoren dator Algorta, non %37ra iritsi den. An-

dra Marin eta Negurin %14ak eta %23ak aurkeztu dute ikuskaritza, hurrenez hurren.

Ikuskaritzaren helburu nagusia da pertsonen segurtasuna bermatzea eraikinen kontserbazio akastunaren aurrean, eraikinen bitziza baliagarria eta balioa luzatzea, eta halaber, hiri-eremuen birgaitzea, zaharberritzea eta berroneratzea areagotzea, dauden baliabideak erabiliz.

Ikuskaritzarekin lortu diren emaitza positiboak direla ikusita, Udalak errekerimendu berriak igorriko ditu ikuskaritza-txostenak aurkezteko, araudi autonomikoa betetz. 50 urte bete dituzten eraikinek (egoera horretan dira 1967an edo lehenago eraikitakoak), eta txostena epearen barruan aurkeztu ez badute, ahalik eta lasterren aurkeztu beharra dute.

Zeregin hori erraztu aldera, Udalak berriazko "bulego-leihatila" bat zabaldu du Santa Clara eraikinean (tel.: 94 466 00 45, [www.getxo.eus/eu/vivienda/IIE](http://www.getxo.eus/eu/vivienda/IIE) eta [www.euskoregite.com/eu/](http://www.euskoregite.com/eu/) eta [IIE@getxo.eus](mailto:IIE@getxo.eus)).

EIT arkiteturako profesional gaituek egiten dute eta hala nola eraikinen benetako kontserbazio-maila ezagutzeko ahalbidetzen du, baita mantentze aldetik egon litezkeen akatsak aurkitzea, horiek gaizkiagotu aurretik, eraikina zaintzeko jarraibideak eskaintzen ditu eta eraginkortasun energetikoa zein den jakin daiteke haren bidez.



## Ama Mesedeetako eliz atzealdeko jolasleku berrituta

Barria kaleko jolasleku, Areetako Ama Mesedeetako eliz atzealdeko partean kokatuta dagoena irekita geratu da hori berritzatzeko lanak amaitu ondoren. Elementu guztiak kendu eta berri jarri dituzte eta inguru osoko zoladura indar-getzaila ere zaharberritu da. Lanek 48.000€ inguruko zenbatekoa izan dute.

**LANPOLTA**  
**SALEROSKETA**  
**GALDUTAKOAK**

- **Salgai** butanozko berogailua, bere salneurriaren erdia baino gubxiagotik, gas naturalagatik aldatzeko. Saunier Duval marka-

Norberaren iragarriak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jalaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



## Getxolandiak ostiralean, hilak 14, zabalduko ditu ateak

Ostiralean, abenduak 14, zabalduko ditu ateak Getxolandiak, Gabonetako haur parkeak, Euskadiko Ferialari Autonomoen Elkargoak (EFAE) antolatua. Ohikoa denez, Areetako Geltokia plazan egongo da eta, iaz bezala, aterperik gabe izango da. Atrakzioen eskaintza iazkoa bezalakoa izango da. Banakako sarrerak

1,5 euro balio izango du eta 5 bidaiako txartelak 5 euro. Getxolandia zabalik egongo da 2019ko urtarrilaren 6ra arte, igandea, eta ordu-tegia izango da 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Atrakzioez gain, umeentzako hainbat jarduera dohainik egongo dira, besteak

beste, krispetak banatuko dira (abenduarren 21ean eta urtarrilaren 4an, 18:00etan), magia-saioa Oliver magoarekin (abenduarren 24an, 17:00etan), txokolate-jana (abenduarren 27an 18:00etan eta urtarrilaren 3an 18:30ean) eta pinen tailerra (abenduarren 28an) eta makilaje-tailerra (urtarrilaren 2an) 17:00etatik 19:30era.



## Fernando Palazuelosek "Llamadme Žula" aurkeztu du

Aste honetan, Fernando Palazuelosek, *Llamadme Žula* liburua aurkeztu du gure udalerrian. Lan horrekin, Kultur Etxeak Pinillesca kolektiboarekin batera deitutako Ramiro Pinilla I. Eleberrri Laburraren Lehiaketa irabazi zuen. Fikziozko eleberria da, Txertoa argitaletxeak argitaratu duena, Václav Havel olerkari eta dramagile txekiarren bizipenetan inspiratua. Havelek demokraziaren alde borrokatu zuen, komunismoaren aurkako jarrean erori gabe, eta etika, humanismo, zintotasuna eta bihozberatasunarengatik egin zuen. Bere erresistentzia eta portaera ereduak izan ziren herrialde osoarentzat. Lehiaketaren epaimahaiak eleberriri buruz honako hau adierazi zuen: "askatasunarekiko, koherentzia personalarekiko eta zuzentasun etikoarekiko konpromisoari buruzko hausnarketa interesgarria da, hori guztia oso estilo zaindu eta landuarekin egina". 1965ean jaio zen idazle eta irudigile

honen bederatzigarren eleberria da hau, antzerki lanak eta poema-liburu irudiekin ere argitaratu dituena. Bere lanak hainbat sari jaso dute, besteak beste, Torrente Ballester edo Vicente Blasco Ibáñez sariak.

## Ia 6.000 pertsona Euskaraldian

5.817 getxotarrek (%62,51 emakumezko, %37,44 gizonezko eta %0,48 ez binario) parte hartu zuten udalerrian, euskara sustatzeko hizkuntza ohiturak aldatzearen aldeko Euskaraldiaren ekimenean, eta horietatik 3.865k Ahobizi izateko konpromisoa hartu zuten; 1.663k Belarriprest eta 289k Irribizi. 500 parte hartzailek osatutako laginari egindako inkesta baten arabera, %81k lehenago baino gehiago erabili zuten euskara ariketak iraundu zuten 11 egunetan zehar. Bestalde, %52k bete ahal izan zuten arazorik gabe aukeratutako rola, beste %39k bete zuen baina kostata, eta gainontzekoek ez zuten bete. Azkenik, parte hartzaileen %80k euskarazko harreman berriak egin zituen, besteak beste, lagunekin, merkatariekin, ezagunekin, lankiderekin eta etxekoekin.

## 2018ko ALBE Gala Igeretxan

Datorren larunbatean, hilak 22, ALBEk, Algortako Bertsolari Eskolak, bere urteroko gala ospatuko du. Oraingoan, hori Igeretxe jatetxean izango da, 19:00etatik aurrera, doako sarrerarekin. Bertan ALBEren 2018ko errepasoaren irudiak proiektatuko dituzte eta bertso saio bat izango da, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jone Uria eta Sebastian Lizasoren eskutik. Ekitaldian Urrezko Ahobia saria Imanol Lazkanori emango diote eta Kupela taldearen musika emanaldia ere izango da.

GABONETAKO KONTZERTUAK		
EGUNA	LEKUA / ORDUA	ABESBATZA
15 larunbata	Bariko San Nikolas parroquia (Algorta) 20:00	*Biotz Alai Txiki *Biotz Alai
	Hirutasun parroquia (Algorta) 20:30	*Itxartu Abesbatza *Santurtziko Musika Eskolako Haur abesbatza
19 asteazkena	Erredentore eliza (Algorta) 20:00	*Ondarreta Abesbatza *Ondarberri Abesbatza *Arima Kamerata Ganbera Orkestra
20 osteguna	Erredentore eliza (Algorta) 20:00	*Urepel Abesbatza *BBKantuz Korua *Islares Coro de Cámara
21 ostirala	Santa Ana parroquia (Areeta) 20:00	*Ondarreta Abesbatza *Ondarberri Abesbatza *Arima Kamerata Ganbera Orkestra
	San Jose Obrero parroquia (Romo) 20:00	*Zozoak abesbatza
22 larunbata	Santa Ana parroquia (Areeta) 20:30	*Areetxo

## ARETOA eta LAZADA programak GETXOARTE 2018an

Abenduaren 14tik 16ra ARETOA eta LAZADA programak izango dira Romo Kultur Etxean, GETXOARTE 2018ko ekitaldiaren barruan. Artista gazteak ibilbidearen hasieran garatzen ari diren lana edo atzean ibilbide luzea duten sortzaileen lana ikusteko aukera da hitzordu hau. GETXOARTE ekimenaren jatorria da ARETOA; edizio honek, beraz, artisten lana hartzen du ardatz nagusi, erakusketaren formatua alde batera utzita. 30 artistatik 10era pasatu da, Getxoarte Sariak aurrera jarraitzen du (erakutsiko diren artelanetako batek Artium Museoan dagoen bilduma osatuko du) eta hautatutakoaren artean badago bideo dokumental bat, baita eskultura, eleberri, diseinu, margolan eta instalazio bat ere; hautaketak, artista garaikideek erabili ditzaketen hizkera askotarikoekin ikuspegi zabala ematen du. ARETOA LAZADAekin sinbiosian sortzen da, programari dagokionez. LAZADA komisarioen topaketa da, arteka-



ritza eta ikerketa praktikoak egiteko, artista talde horri lana testuinguruan jartzeko eta estatuan hainbat arlotan, hala nola ikus-entzunezkoetan, zinemagintzan, musikagintzan edo arte eszenikoetan, diharduten komisarioekin sormen-prozesuei buruz hitz egiteko aukera ematen diena.



# Jarduerak herritar guztien oinarrizko eskubideak aldarrikatzeko Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta

Etorkin guztien oinarrizko eskubideak bizitzea erabakitzen duten tokietan aldarrikatzea, herritarren integrazio-rako, kulturen arteko bizikidetzarako eta kohesio sozialerako oinarrizko berme bezala izango da beste urte batez, abenduaren 18an ospatzen den Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak antolatutako jardueren helburua. Hainbat entitateren (Getxoko etorkinen Plataforma Federazio, ZAS Zurrumurruen Aurkako Sare, porCausa eta Eusko Jaurlaritza) laguntzarekin, egitarauak mota guztietako publikoarentzako jarduerak anitzak ditu.

## Programa

Abenduaren 15era arte, Villamonteko Kultur Etxean zabalik dagoen *Soy una valla* izeneko erakusketarekin batera, abenduaren 14an, ostiralean, 21:00etan,  *Loving* pelikula proiektatuko da Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, zine-klub zikloaren barruan. Virginiatik, jaiotze estatutik 60. hamarkadan legeak arraza desberdinen arteko ezkontzak debekatzen zuten legeagatik, ihes egin behar duten Amerikako Estatu Batuetako senar-emazte baten istorioa da.

Hurrengo egunean, larunbatean, Kultura arteko jaia izango da Villa-



monteko Liburutegian, 18:00etatik 21:00etara, tailer, jolas, erakusketa eta familientzako dantzekin, Liburutegiak Topaleku ekimenaren barruan.

Egun horretan, baina Areetako Musika Eskolan, eta 20:00etan, *Eraikitzen gaituzten hitzak* izenburuko antzezpena izango da. Getxoko hainbat gaztek izaera anitzen, jabegoen, estereotipoen eta aurreiritzien inguruan Horman

Poster kolektiboaren gidaritzapean egindako hausnarketa izango da lana. Sarrera doakoa izango da, tokia bete arte.

*Mujeres migrantes africanas en la encrucijada* izenburuko solasaldia izango da abenduaren 19an, asteazkenean, 18:00etan, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren programazioaren barruan, Jeanne Rolanderen esku-

tik. Ikertzaile, hezitzaile eta aktibista feminista den hizlariaren tesiaren ondorioak zabaltzeko ziklo batean kokatuta da hitzaldia. Lan horretan, Afriko emakume migratzaileen autonomia prozesuak jorratzen dira kolonial eta arrazismoaren kontrako ikuspegi feministatik. Aldi berean, beraien herritartasun eta giza eskubideen aldeko proposamenak aurreikusten ditu ikeritzaileak. Ekitaldia Villamonteko Liburutegian izango da.

Azkenik, abenduaren 20an, ostegunean, 19:00etan, *Como si nunca hubieran sido* izeneko poema ilustratuaren aurkezpena izango da Romo Kultur Etxean, Javier Gallego Crudo, Juan Gallego eta Idoia Moreno Médicos Sin Frontera erakundearen erizainaren solasaldiarekin batera. Europara iritsi nahi duten eta itsasoan hiltzen direnek bizi duten zorigaitzari buruzko poema izango da. Egileek eta Reservoir Books argitaletxeak ale bakoitzeko 3€ren dohaintza emango diote Médicos Sin Fronterasi. Osasun eta giza eskubideen aldeko erakundea da hori, gatazkek, gerrek, indarkeriak, epidemiek, ahaztutako gaixotasunek eta hondamendi naturalek kaltetutakoek artatzen ditu eta baita osasun zainketa ez duten pertsonak ere.

## Emakume Etorkinen Topaketa programa RKEEn

Aste honetan zabaldu da Emakume Etorkinen Topaketa programaren edizio berrirako izena emateko epea. Oraingoan saioak Romo Kultur Etxean, RKEEn, izango dira, urtarrilaren 19tik ekainaren 1era arteko larunbatetan, batean bai eta hurrengoan ez, 17:00etatik 20:00etara.

Udalak antolatutako ekimenaren helburua da, beste urte batez, emakume etorkinak laguntzea, horientzako elkartasun-gunea eskaintzea eta aldi berean egun dauden eskubide eta baliabideen berri ematea. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta norberaren zainkarako heziketa ere eskaintzen du programak, hau da, emakume etorkinak

batzen dituzten gaiak buruz hitz egiteko tokia baita: zailtasunak, zalantzak, herrimina, poztasuna, hartzen dituen hirian xede eta amets berriak eraikitzeko moduei buruz mintzatzeko...

Saioetan, migrazioak dakartzan erronkak pertsonalki eta profesionalki bizi izan dituzten bideratzaileak egongo dira. Izenematea: Herritarren Arretarako Bulegoetan, e-maillez ([mujeresmi-gradas@getxo.eus](mailto:mujeresmi-gradas@getxo.eus)), [www.getxo.eus/kulturartekotasuna](http://www.getxo.eus/kulturartekotasuna) webgunean eta WhatsAppen bidez 663611002 telefono zenbakian. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, alde zuzenetik eskatuta. Informazio gehiago: 944 66 01 51.



## “Tomiris”, indarkeria matxista aztertuz gizonen ikuspuntutik

*Tomiris* izenburuko antzezpena izango da abenduaren 17an, astelehenean, 19:00etan, Romo Kultur Etxean, RKEEn, indarkeria matxistari buruz gizonen ikuspuntutik, Udalak antolatuta, gizon gazte eta nagusientzako hausnarketa gune

jarraipena emateko. 16 urtetik gorakoentzako ikuskizuna da, euskaraz eta doakoa. ATX Teatroa eskainiko duen *Tomiris* lanak gizonen ohi-ko eredu zalantza jartzen du eta berdintasunaren aldeko jarrerak proposatzen ditu.

## Otzara solidarioaren zozketa Algortan

Hirugarren urtez jarraian eta Gabonetako jaiak direla eta, Algortako ostalaritzako elkarteak 2.500€ko balioa duen otzara solidarioa zozketatuko du berriro aurten. Oraingoan, ateratzen den dirubilketa Salvamento Marítimo Humanitario izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearentzat izango da.

Txartelen prezioa euro batekoa da eta hurrengo tokietan erosi ahal dira: Burdinola, Piper's Irish Pub, Trés Bien, Etxetxu, Baster, Saniko, Satistegi, Brasagoiti, Alvarito's, Bidean, Kaixo, Ugartena, Alkartetxe, Huerto, Ajuria, Rugby Getxo, Unai Taberna, Sustrai, Biltegi, Maggie's, La Plaza, Salem, Nikkou, Caza eta Tellagorri. Saritutako zenbakia 2019ko urtarrilaren 6ko Haur zozketan aterako dena izango da.



## Jorge Pinedo Martin, Bidezko Merkataritzako produktuen otzararen irabazlea

Irantzu Uriartek, Udaleko Garapeneko Lankidetzako zinegotzi arduradunak, *Getxotik Mundura Mundutik Getxora* ekimen solidarioaren barruan (<https://bit.ly/2QlasPb>), azaroaren 29tik abenduaren 2ra bitartean udalerriko ostalaritzako 58 establezimendutan kafea edo kakao kontsumitu zuten pertsonen artean zozketatutako Bidezko eta Tokiko Merkataritzako produktuen otzara eman du. Ekimenak Getxo garapeneko lankidetzaren eta sentsibilizazioaren alde egindako lana eman nahi du aditzera.

## Kuxin solidarioak Divina Pastoran

Areetako Madre del Divino Pastor ikasketxearen Gurasoen Elkarte bileran solidarioak egiten ari da bihotz-itxurako kuxinak ehuntzeko asmoz, Bizkaiko Ginekologiko eta Bularreko Minbiziaren Elkartearentzat (ACAMBI) izango dira eta behar duen edozein pertsonarentzat. Kuxin hauek helburu terapeutikoa dute, lagungarriak baitira zauria ez ukitzeko, eta horrela, ebakuntza ostekoa hobetzeko. Oihalak eta barrukoa zenbait dendak eman dituzte eta lanketa guztiz altruista da.





### 35. Itziar Lopez de Uralde Oroi-lasterketa

2.000 atletatik gora espero dira igande honetan, hilak 16, Itziar López de Uralde Oroi-lasterketan parte hartzeko. Itxartu Taldeak eta Getxo Atletismo Klubak antolatuta, proba Fadura kiroldegiko eraikin nagusiaren paretik aterako da 11:00etan, eta udalerriko auzoetan barrena 9 kilometro ibili ondoren, Fadura itzuliko da, atletismoko pistako helmugara. Proba nagusia hasi baino lehen, 10:30 aldera, ohi bezala, lekukotasun-lasterketa egingo da; 2 kilometroko lasterketa izango da.



### 70 belaontzi inguru Gallo Estropadan

Ohioa den Galloren bela estropadak Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkarrean 2018ko egutegia itxiko du. Crucero eta J 80 klaseetako 70 ontzi inguruk osaturiko taldea -400 bat nabigari- Bizkaia Zubi azpitik igaroko da larunbat honetan, hilak 15, 12:00ak aldera, eguraldi ona badago, eta une hori ikusgarria izango da; berriro ere irudi itzela izango da; izan ere, Itsasadarraren bi ertzetan bilduko diren ehunka zale eta paseariek irudi horri argazkia ateratzeko aukera izango dute.



### Pierre Rollet, Punta Galea Challenge txapelkun

Baionako surflari beteteranoak, Pierre Rolletek, jantzi zuen txapela Punta Galea Challenge txapelketan. Finala iragan astelehenean jokatu zen, hilak 10, sei bat metroko altuera zuten olatu ikusgarrien artean; giroa ere aparta izan zen, ehunka lagun bildu baitziren itsaslabarreen ikuskizun itzela jarraitzeko. Bigarren tokian Aritz Aranburu gipuzkoarra sailkatu zen eta Alex Botelho portugaldarrak osatu zuen podiuma. Olatu handien txapelketa bi aldiz irabazi duen Nick Lamb laugarren sailkatu zen.



### “Getxoko Ikurriña” sustatzeko hitzarmena

El Abra-Getxo Kirol Portua SA Sozietateak eta ACT-Asociación de Clubes de Traineras elkarrean lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute *Getxoko Ikurriña* delakoaren estropadak sustatzeko. Hitzarmenaren bitartez, ACTk berak antolatuko ditu emakume zein gizonezkoen estropadak, eta 2019ko Eusko Label Ligaren eta Euskotren Ligaren estropada puntuagarrien egutegian (Getxoko bi estropadak uztailaren 28an egingo dira) sartuko ditu; kontratua luzatuz gero, hurrengo urteetakoak ere, 2022ra arte.

## GABONETAKO KIROL CAMPUSAK

ANTOLATZAILEA	PROGRAMA	ADINAK	DATAK ETA ORDUTEGIA	PREZIOA	HARREMANETARAKO
Getxo Gimnasia Erritmikoko Kluba	Gimnasia erritmikoko lotutako jarduerak Faturan	5/18 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:00	84/160€	Emaila: <a href="mailto:club_ritmica_getxo@hotmail.com">club_ritmica_getxo@hotmail.com</a> Tel.: 685 545 032
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia Gobelan	6/14 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:30	25/150€	Emaila: <a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> Tel.: 657 773 523
Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte	Igeriketa, kirolanitzak eta tailerrak Faturan	4/12 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:30	25/120€	Emaila: <a href="mailto:urkogiw@gmail.com">urkogiw@gmail.com</a> Tel.: 663 871 318
Getxoko Hondartzak Tenis Kluba	Tenisa eta kirolanitzak Faturan	6/18 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:30	72/180€	Emaila: <a href="mailto:tenisplayasdegetxo@gmail.com">tenisplayasdegetxo@gmail.com</a> Tel.: 685 751 688
Fadura Tenis Kluba	Teniseko teknifikazioa Faturan	8/18 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:30-14:30	150€	Emaila: <a href="mailto:tenisfadura@gmail.com">tenisfadura@gmail.com</a> Tel.: 609 400 742
Arenas-Romo Futbol Kluba	Futbola Gobelan	5/14 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:30	25/70€	Emaila: <a href="mailto:club@arenasromo.com">club@arenasromo.com</a> Tel.: 657 268 606
Getxo Azkarrenak Irristaketa Kirol Kluba	Irristaketa eta kirolanitzak Gobelan	3/12 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 8:30-14:30	25/130€	Emaila: <a href="mailto:ander.i@clubpatinajelineagetxo.com">ander.i@clubpatinajelineagetxo.com</a> Tel.: 664 570 994
Getxo Xake Kluba	Xakea tresna pedagogiko eta sozializazile bezala Gobelan	6/16 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:00-18:00	30/100€	Emaila: <a href="mailto:info@damagaztea.com">info@damagaztea.com</a> Tel.: 688 677 874
Getxo Futbol Kluba	Futbola Faturan	5/14 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:00-14:00	20/120€	Emaila: <a href="mailto:campus.getxofutbola@gmail.com">campus.getxofutbola@gmail.com</a> Tel.: 615 982 663
Haszten Elkarte	Inklusio eta egokitutako campusa Getxo Saskibaloia eta Azkarrenak Irristaketa Kirol klubeekin elkarlanean Gobelan	8/21 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:00-14:00	24€/eguna	Emaila: <a href="mailto:hasztenkirola@gmail.com">hasztenkirola@gmail.com</a> Tel.: 699 609 588
Show Getxo Irristaketa Kluba	Irristaketa Andra Marin	4/16 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:30-13:30	35€	Emaila: <a href="mailto:info@cpsshowgetxo.com">info@cpsshowgetxo.com</a> Tel.: 615 501 624
Getxo Atletismo	Atletismoa Faturan	8/16 urte	Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra 9:30-13:30	50€	Emaila: <a href="mailto:getxoatletismoa@gmail.com">getxoatletismoa@gmail.com</a> Tel.: 688 698 882

# Udal talde politikoaren iritzia



## ZORIONAK!

Bai, Gabonak dagoeneko bertan dira, eta Getxoko kaleetan ere nabari da; izan ere, Gabonetako argiak lagun ditugu egunotako jarduera guztietan. Argi eta jarduera horiek guztiak erakarrira, Getxoko saltokietara eta dendetara joko dugu gure Gabonetako erosketak egitera. Getxoko auzo guztietako kaleetan egiten diren askotariko jarduera kulturalerik, kirol jarduererik eta aisialdirako jarduererik gozatzeko aukera izango dugu, hartara, elkarretaratzez nahiz ilusioz betetako egun hauetan herritar guztiek, baina, batez ere, etxeko txikienek, gozatu ahal izan dezaten. Olentzero eta Errege Magoak gurera etorriko dira, eta egun berezi hauetan lagun artean eta familia-giroan murgilduko gara gu. Hori guz-



tia gure udalerriko edozein puntutan egin ahal izango dugu; izan ere, kultura eta aisialdi eskaintza zabal eta interesgarria edukiko dugu Getxon, mundu guztiak Gabonak ospatzeko aukera izan dezan.

2019. urtea oso urte berezia izango da, talde politikoentzako lan handiz eta ilusioz beteta etorriko baita, besteak beste, foru- eta udal-hauteskundeak izango ditugulako. EAJ-PNV alderdiak aukera izango du herritar guztiei, gure auzotar guztiei, datorren legegintzaldian gure gain hartuko ditugu konpromiso guztien berri emateko. Bien bitartean, gure partez ZORIONAK eta EGUERRI ON, bihotz-bihotzez. 2019 URTE BARRI ZORIONTSUA izan dezazuen opa dizuegu.

PSE-EE  
PSOE

## BERRI ONAK

Azken egunotan, getxotarrak bi berri on jaso ditugu. Lehenengoa komunikazio-kanpaina berriari buruzkoa da, zati organikoaren gaikako bilketa zabaltzeko asmoa duena. Ez da ohiko kanpaina bat izango, aitzitik, atez ate egingo den kanpaina bat izango da. Udalerriko etxe guztietara heltzen saiatuko gara, 2020an hondakinen birziklapenaren % 50era iristeko helburuarekin, hain zuzen ere, Europako zuzentzaruek ezartzen duten bezala. EH Bildu alderdiarekin lortutako akordioak konposta egiteko udal-instalazio bat sortzea ere barne hartzen du. Gainera, zerbitzuaren kostuen azterlan bat egingo dugu, gehien birziklatzen duenak gutxiago ordain dezan. Bestalde, azken osoko bilkuran, eta sozialistok aurreko legegintzaldian proposatu genuen Etxebizitza Planari esker, HAPOn aldaketa puntuala onetsi zen, Ormazako hiri-lurzorua garatzeko. Akordio horri esker, eraikigarritasuna handitu egingo da 23.000 m<sup>2</sup>-tik 30.000 m<sup>2</sup>-ra. Horrela, babes ofizialeko 116 etxebizitza eraiki ahal izango dira. Horietatik 69 etxebizitza babestuak izango dira eta 47 tasatuak. Jakin badakigu ez dela irtenbiderik onena, baina arazoa arintzeko modu bat izan daiteke.

CS

## GABONETAN APARKATZEA: TXARTO

Mozio bat aurkeztu genuen azken udalbatzan **Artatza Romo** eta **Julio Caro Baroja** institutuak aparkaleku gisa erabiltzeko abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean. Gainera, egun horietan **Romo ikastetxe**ko beste kantzaren bat aparkaleku gisa erabiltzeko aukera aztertzeko eskatu genuen. PP eta GUK abstenitu egin ziren. PNV eta PSE-EEK, dirudienez **Romo** ikastetxearen zati bat aparkaleku gisa egokitzeko neurri eskasa errepikatuko dutenak, aurka bozkatu zuten, EH Bilduk bezala. Aurten ere, gobernuak Gabonetan aparkatzeko arazoari berandu eta txarto egingo dio aurre. **944660291**.



## SALTOKIEN HAZTEGIA ALGORTAN



Saltoki ugari ari dira atek ixten Getxon eta, ondorioz, saltokirik eta jenderik gabeko auzo mortu bilakatzen ari dira gure kaleak. Horren erakusgarri argia da Algortako Amesti kalea, gaur egun hamalau saltoki itxi baitaude bertan. Gure aburuz, udalak merkataritzaren alde egiteko unea iritsi da; lanean buru belarri hasi behar dugu merkataritza sortu, mantendu eta garatzea nahi badugu. Hori dela eta, zera proposatu dugu: udalak lokal horiek alokatu ditzala eta gure udalerrian lan egin nahi duten ekintzaileen esku jar ditzala. Izan ere, saltokiak dauden tokian, bizitza dago.



## PEDAL KONTUA

Duela pare bat aste, EAJ, PSE-EE eta EH Bilduren arteko Getxoko hondakinen bilketari buruzko akordioak ezustean hartu gintuen. Hondakinen foroa bertan behera utzi ostean, non arlo honen inguruko talde eta elkarte sozial guztiak ordezkatuta gauden, eta herritarrak kontzientziatzeko eta jatorriko bilketaren ehuneko hobetzeko asmoz Getxon hartu beharreko neurriak eztabaidatzen ari ginen, bat-batean jakin dugu gobernu-taldeak neurri-sorta bat sinatu duela TALDE BAKARRAREKIN. Gainera, neurri

horiek ez dira foroan aurkeztu zituztenak! GUK Getxo taldeak hainbat proposamen aurkeztu zituen hondakinen foroan, guztion artean neurriok eztabaidatu eta bozkatzeko asmoz, espazio horren erabilera sustatuz eta akordioak bilatuz. Egungo edukiontzietan pedala jartzeko ideia mahai gainean jarri genuenean —hainbat talderen babesarekin—, **EAJ alderdiak uko egin zuen**. Argi utzi zuten edukiontzien goialdea aldatzeko apustua egingo zutela, herritarren kexei "erantzuna emateko", baina betiere pedalik jarri GABE. Atzera pausorik ez emateko eta egindako ageriko akatsa ez onartzeko, hala moduzko zuzenketa hau aurkeztu dute. Horrenbestez, EH Bilduk **beste behin** EAJ-PSEri bide emango dio, duela hilabete batzuk esan bezala, edukiontzietan aho berririk ezartzeko. Horiek horrela, foro honetan eskaerak egiten jarraitzeko **aukera kenduko** digute, edukiontzietan pedalak jartzearena, hain zuzen. Gauzak horrela, GUK Getxok foroa berriro ere abian jartzeko eskatuko du, edukiontzia hautatzeko unean berriro ere akatsik egin ez dezaten.



## AURTEN GABONETAKO OTARRAK ZOZKETATUKO DITUGU!

Herritarren ordezkariek gara, ez gara herritarrak baino gehiago ezta gutxiago ere, herritarrak gara eta ez dauka inolako logika demokratikorik herritarren zergekin guretzako diren pribilegioak ordaintzea. Gu ordezkaririk politikoa, onerako edo txarrerako ez gara udal langile arruntak (batzuk ez gara ezta langile publikoak ere), gure jarrera politikoa, guk hartu ditugun erabaki pertsonalengatik aldi baterako lana egiten dugu gure auzokideen alde, kitto. Horrek ez digu



ematen inolako pribilegiarik izateko eskubidea. Horregatik guztiagatik aurten erabaki dugu gabonetako otarrak

zuen artean zozketatzea, zuenak direlako eta diru publikoarekin ordaintzen direlako.

Gure zozketan parte hartzeko pribilegio hauen inguruan zuen iritzia bidali Abenduaren 20ko eguerdia, 12:00ak baina lehen, facebook, twitter, instagram, Getxoko EH Bilduren whatsapppe edota emailez. Zozketa abenduaren 20an egingo dugu eta Abenduaren 21ean otarrak jaso beharko dituzte irabazleek **#getxonpribilegioren**.